

GIPUZKOA

Nahikoa sagardo, pintxo eta festa giroa

Altzuetak irabazi du 44. Sagardo txapelketa eta Lizeagarentzat izan da herritarren saria

Jende ugari bildu zen Santio Eguneke ospakizunetan

ELI AIZPURU AZPEITIA

26 julio 2016
07:57

Santio Eguna aipatu hutsarekin, sagardoa datorkie burura hainbat eta hainbat azpeitiar eta ingurukoei. Landeta, Loiolatxo eta Loiolabide elkarteek, Udalaren laguntzarekin, antolatu ohi duten Sagardo Lehiaketak ez du parekorik. Lehiaketak eta sagardoaren bueltan sortzen den giroak. Bi lehia izan ohi dira Azpeitian. Bata, 'ofiziala' epamahaiko kideek emandakoa eta herritarrena, bestea. Hainbat elkarteetako kide aritzen dira dastaketa lanetan. 23 sagardogile izan dira aurten ere (arkupe bakoitzeko bat) txapelaren bila. Hernaniko Altzuetak sagardotegia izan da aukeratua, 134 punturekin; Astigarragako Alorrenearekin lehia estuan, 133 puntu lortu baititu bigarrenak. Hirugarren lekuan, Ikaztegiako Begiristain sailkatu da, 127 punturekin.

Herritarren saria berriz Lizeaga sagardotegiak jaso du edizio honetan, Donostiara joan da beraz txapela.

Baina ez da sagardoa bakarrik izan Santio edo Baserritarren Eguneke protagonista. Honekin batera, XVIII. Gazta Lehiaketa ere jokatu da. 28 gaztagile izan ziren atzokoan lehian. Urbiako Aizpea elkartekoa izan zen gaztarik onena. Markinako Santamaña sailkatu zen bigarren lekuan eta hirugarren postua Elgoibarko Mausitxa baserriko gaztari egokitu zitzaion.

Sagardoa edateko, gaztarekin batera, plazara hurbildu ziren ehunka lagunak izan zuten bestelako pintxoak dastatzeko aukera. Bezperan hasita, txekorra erre zuten herriko hainbat harakinek eta horrez gainera, hegaluzea ere eskaini zuten. Txekor erre pintxoak salduta bildutako dirua Afrikara eta Indiara bideratuko dute, hainbat proiektu laguntzeko.

Santio Eguna ez da ordea jana eta edana bakarrik. Goizean zehar, Udaleko arduradunek Hazparnetik iritsitako 80 lagun ingururi harrera egin zieten eta Azpeitiarekin senidetuta dagoen herri honetako bizilagunek ere izan zuten festaz gozatzeko aukera. Hala nola, Azpeitiko Napar Zuzterrak Taldeko kideek eskainitako dantzak, Nafarroako bandera omenduz edota Frontoia Txikian jokatu ziren Cesar Valverde gaztetxoek pilota finalak ikusteko aukera izan zuten.

Arratsaldean, kantu poteoa eta Zezen Beltz eta Toropasionez antolatutako Errekortari jaialdiak osatu zuten eguneke egitaraua, 'Jaineekin' txarangaren abestien doinupean.

Blonda Txapelketa

Baserritarren Egunearekin jarraituz, Santio Egunean, ganadu faltarik ez da izan ohi. Bi urtean behin ordea, Euskadiko txapelketa egokitzen da eta aurten ospatu da XXI. Euskadiko Blonda Txapelketa. Ikuskizun paregabea izan zen bertaratutako ia 100 buru ilaran ikustea. Blonda arrazako txapelketa honetan herriko hiru baserritarrek hartu dute parte, Agiteko Antonio Olaizolak; Eizmendiko Luzia



85 buru inguru izan ziren ikusgai Zelai Luze eta astotegian eta umeak, batik bat, abereen ondoan egoteko aukera aprobetxatu zuten. / ARGAZKIAK ELI AIZPURU



de Fagollaga

¡Increíble menú en p
Errenteria!
Oarso Sagardotegia

Llévatelo

21,90€